

artikulu nabarmenak artículos destacados

azaroa/noviembre



QUEIROLO PALMAS, Luca. [jBandas fuera! Escuela, espacio público, exclusión.](#) *RES.Revista Española de Sociología*. Madrid: Federación Española de Sociología, 2014, nº 21 zk., 25-46. or.

Banda da artikularen gogoetarako bide, gazte immigranteek euren harremanak antolatzeko sortutako berezko modua, eta bandakideak bazter egotera kondenatuta daudela irizten dio egileak. Ikastetxeetan gazte immigranteak baztertuak dira, hezkuntza-erakundeek ez dute ezer jakin nahi haien porrotaz, eta, sarritan, inhes egiten diete. Areago, botereek nahiago dute gazte horiek agerian ez izatea, leku edo zentro baten itxura onari kalterik ez egiteko. Kaleetan, parkeetan eurekin topo egitea gizarte-, hezkuntza- eta gazte-politikarik ezaren erakusgarri da.



SELMA PENALVA, Alejandra. Los trabajadores más jóvenes como colectivo protegido en el ámbito laboral. *Actualidad laboral*. Madrid: La Ley, 2014, 3. zk. Hogeita hamar urtetik beherako langile gazteak lan-munduan sar daitezten sustatzeko arauak aztertzen ditu artikulu honek. Besteak beste, Langile Autonomoaren Estatutu Juridikoari buruzko 20/2007 Legea, besteren konturako langile gisa gurasoarekin batera aritzeko aukera ematen duena. Edo ekintzaileari laguntzeko 11/2013 Legea eta ekintzaileen 14/2013 Legea. Arauok ondoko hauek sustatu nahi dituzte: hobariak, langabezia-prestazioa jasotzeko bateragarritasuna, kontribuzio mailakoa ez den prestazioaren kapitalizazioa, prestakuntzari lotutako kontratazioak, mikroenpresei eta gizarte-ekonomiako enpresei bideratutako pizgarriak... 3/2012 Errege Dekretuak, gerora 3/2012 Legea izango denak, ekintzaileei laguntzeko lan-kontratuaz gainera, behin betiko kontratazioa bultzatzeko pizgarriak ezartzen ditu, prestakuntza-kontratuari eusteko adin-mugak malgutu, eta abar. Dena den, ekoizpen-jardueren sendotzeak baino ez du bermatuko lana aurkitzea.



GÓNZALEZ BEDEGA, Sergio, et al. Y la juventud, ¿qué opina sobre todo esto? *Revista APD: Asociación para el Progreso de la Dirección*. Madrid: APD, 2014, 299. zk., 32-35 or.

Hezkuntza eta lanaren arteko harremanak, curriculumean alderdi preziatuena zein den, marka pertsonala kudeatzeko moduak, edo zoriontsu izateko lanaren ezaugarriak... Horiexek dira egileek proposatutako galderak. Erantzunetara jotzen badugu ondorio honetara helduko gara: unibertsitateak ezagutza teorikoak eskaintzen ditu, baina praktikan jarduteko aukera gutxi. Egileen ustez curriculumari begira garrantzizkoak dira, besteak beste, lan-eskarmentua, hizkuntzak jakitea eta norberaren ahalmenak. Marka pertsonalarena ezezaguna da zenbaiten kasuan; beste hainbatek uste du sare sozialetan arduratsu hartu behar dela parte. Zorioneko lanari dagokionez halakoak proposatu dituzte: nork bere burua landu ahal izatea, garapena, motibazioa, ilusioa, lana eta familia bateragarri egitea...

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA